

Orratzetik hari

Haur bat negarrez hipaka heldu da.

- Haurra : Ama, ama, Min hartu dut ! Ai, Ai, Ai ! Min handia dut !
- Ama : Zer duzu ? Zer gertatu zaizu ? Erakuts iezadazu.
- Haurra : Erle batek xixtatu nau ! Erretzen du ! Ai, ai, ai !
- Ama : Sar gaitezen. Lehenik eztena kenduko dizut eta gero sendatuko zaitut.
- Postaria : Egun on Margarita. Tori gaurko gutunak eta egunkaria. Zer gertatu zaio Eñauti ? Haren marrumak entzun ditut. Ez ahal du eroriko bat egin bizikletaz...
- Ama : Ez du gauza handirik. Erle batek besoan xixtatu du.
- Postaria : Gaizo haurra. Ezar iezaiozu ozpin xorta bat xixtaren gainean eta berehala arinduko zaio mina. Agur !
- Ama : Bai, bihar arte !

Harategiaren atarian harakina dago. Erosle bat heldu zaio.

- Erosle bat : Egun on, Beñat.
- Harakina : Bai zuri ere. Zer nahi zenuke ?
- Eroslea : Hiru xerri kostalet eta hamar xingar xerra. Zer ziren negar horiek ?
- Harakina : Ez dut ontsa entzun baina iduritzen zait zerbaitek Eñaut ausiki duela. Agian ez da suge baten lana, sasoi honetan sekulakoak baitira. Funtsean nihaurek biga ikusiak ditut atzo etxe gibleko oihanean.
- Eroslea : Zuk errazu. Kasu egin behar da. Ondoko egunak artio, Beñat.

Erosleak jaun batekin topo egiten du.

- Eroslea : Jakin duzuia berria ? Suge batek Eñaut tipia bi tokitan ausiki omen du. Haren orroek karrika guzia airean atxiki dute. Gaixo haurra !
- Jauna : Nola gertatu da ?
- Eroslea : Badakizu oraingo burasoak zein ezazolak diren ! Segur naiz haurra bakarrik utzia zutela etxe gibleko oihanean jostetan. Agian ez da makurrik gertatuko. Are, ene bidea segitzen dut.

Jauna karrika garbitzailearen ondotik pasatzen da.

- Karrika garbitzailea : Zer, ibilki ?
- Gizona : Bai, eta zu beti lanean ?
- Karrika garbitzailea : Aro goxo honek irauten dueno, lana plazer bihurtzen da.
- Gizona : Ez da berdin goxoa denentzat ! Jakin duzu berria ?
- Karrika garbitzailea : Zer gertatu da berriz ere ?
- Gizona : Bi alimaleko sugek Eñaut tipia harrapatu dute oihanean bakarrik zebilelarik eta itsuski xixtatu. Ez dateke ederra ikusteko. Gaixo haurra eta etxeokak ! Agian salbatzen ahalko dute !

Emazte xahar bat agertzen da.

Emazte xaharra : Zer dela, norbait eri ?

Karrika garbitzailea : Bai eta beharbada hil zorian.

Emazte xaharra
(gurutze keinua
eginez): Zer derasazu ? Nor ote ?

Karrika garbitzailea : Bi sugek Eñaut erasotu dute eta berrien arabera molde tristean utzi ! Tenore honetan ez dakigu bizirik aterako denetz.

Emazte xaharra : Zer zorigaitza ! Hain gazterik ! Ui, ui, ui ! Ernatu behar dut erizaina jin beharra baitzait eguneroko pikuraren egitera.

Erizaina agertzen da.

Erizaina : Egun on, amatxi. Itzuliño baten egitera abian zinen ?

Emazte xaharra : Bai. Domaia da ez baitzara lehenago agertu. Menturaz Eñaut tipia salbatzen ahalko zenuen.

Erizaina : Zergatik ? Zer gertatu zaio ?

Emazte xaharra : Zendu da. Suge handi batzuek ausiki dute.

Erizaina : Jesus, Maria eta Josepe !

Gizon bat (elkorra) hurbiltzen da.

Gizon elkorra : Zer da ? Zer gertatzen da ?

Erizaina : Eñaut hil omen da.

Gizon elkorra : Eñauten bila ? Nor, ni ? Zergatik bila joan behar dut ?

Erizaina : Ez, hila da, zendua.

Gizon elkorra : Zer derasazu ? Zimenduaren bila ? Ez dut tutik ulertzen.

Emeki-emeki jendea biltzen hasten da, bakoitzak bere oharra egiten duela.

Gaixo haurra eta gaixo aita eta ama.

Noiz izanen dira ehorzketak ? Bihar ?

Dia, goizegi da; etzi, goizenik etzi.

Bat batean haur bat agertzen da eta oihu egiten du.

2. haurra : Eñaut, Eñaut, heldu haiz pilotan aritzera ?

Eñaut ateratzen da eta bere ama eskuz agurtuz lasterka abiatzen da lagunarengana. Herriko jendea aho zabalik eta tente gelditzen da.

Jokalaria : Haur bat (Eñaut), haren ama (Margarita), postaria, harakina, erosle bat, karrikan dabilen jaun bat, karrika garbitzailea, emazte xahar bat, erizaina, gizon elkor bat, beste herritar batzuk, Eñauten lagun bat.

Autorea : Kattalin Sallaberry

Argitaratzailea : Ikas

Argitaratze data : 2010/12/21

Maila : 3. ziklotik goiti